OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**2015eko MARTXOAREN 26an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**Olaberrian, 2015eko martxoaren 26an, 18:10ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea, Jokin Garmendia Asurabarrena , Jose Manuel Garrido Fernández, Amaia Cuellar González, Joseba Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti eta Gema Echaniz Badiola eta Iñigo Sarasola Aranzasti zinegotziak.**

**Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arebalo Benito, Udaleko Idazkari Kontu-hartzaileak.**

**Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.**

Gai Zerrendaren gaiekin hasi baino lehen, Alkateak honako aipamen hauek egiten ditu:

1º.- Animaliak babesteko eta edukitzeko udal Ordenantza deritzon gaia zerrendaz kanpo atera da, aurreko batzorde informatzailean gaiaren inguruko zenbait kuestio mahairatu zirelako eta hauek jorratzeko denbora gehiago behar delako.

2º.- Batzar honetako Gai Zerrendatik, Udalbiltza Partzuergo eta Olaberriko Udalaren arteko lankidetza-Hitzarmenari

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO CELEBRADO EL 26 DE MARZO DE 2015.**

**En Olaberria, a 26 de marzo de 2015, siendo las 18:10 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde Jokin Garmendia Asurabarrena, los concejales José Manuel Garrido Fernández, Amaia Cuellar González, Joseba Barandiaran Estala, José Bernardo Aldasoro Insausti, Gema Etxaniz Badiola e Iñigo Sarasola Aranzasti.**

**Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arebalo Benito.**

**Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, el Alcalde declara abierta la sesión pasándose a examinar el primer asunto del Orden del Día.**

Antes de comenzar con los temas del Orden del Día, el Alcalde hace dos aclaraciones:

1º.- El tema de la aprobación de la Ordenanza Municipal para la protección y tenencia de animales se ha sacado del orden del día del Pleno, puesto que en la comisión informativa se plantearon cuestiones para el tratamiento de las cuales es necesario más tiempo.

2º.- Se ha extraído también del Orden del Día del presente Pleno el tema del Convenio de colaboración entre el

dagokion gaia atera da, argitu arte.

Ayuntamiento de Olaberria y el consorcio Udalbiltza, hasta que se aclare.

**AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA.**

**APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LA SESIONES ANTERIORES.**

- 2015eko otsailaren 2ko Ohiko Batzarraren akta.

- Acta de la Sesión Ordinaria del 2 de febrero de 2015.

Gaia bozkatu ondoren, aho-batez onartuta geratzen da.

Tras proceder a la votación, queda aprobada por unanimidad.

## ALKATETZAKO GAIAK

## TEMAS DE ALCALDIA

**ALKATETZA-EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

**DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.**

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 6/2015etik 38/2015-ra bitartean.

El señor Alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 6/2015 al 38/2015.

Udal kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

Los corporativos quedan al corriente.

Sarasola jaunak, ondoren zehazten den alkatetza ebazpenari buruz honako ñabardura egiten du:

El Sr. Sarasola desea hacer alguna puntualización a cerca del siguiente decreto de alcaldía:

* 17/2015, 2015eko otsailaren 9koa, Toki Administrazioko gaikuntza estataleko funtzionarioen inguruko oinarri espezifikoen onarpena: Sarasola jaunak oinarri hauek udal-kide guztien artean baloratuak izan beharko liratekeela dio.

* 17/2015, de 9 de febrero de 2015 a cerca de la aprobación de bases específicas para la provisión de plazas correspondientes a los funcionarios con habilitación de carácter estatal: afirma que estas bases tienen que ser valoradas por todos los corporativos.



2

**BAKE EPAITEGIAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaien udal-kideei.

CCOO, ELA eta LAB sindikatuek sinatutako mozio bat aurkezten da, merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka.

Gaia aski eztabaidatu ondoren, udal-kideak honako akordio hauek hartzen dituzte aho-batez.

LEHENENGOA: Merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dio uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretu Legearen aurka agertzea.

BIGARRENA: Bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibilak kudeatzen dutenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskainiz, orain eta betiko.

HIRUGARRENA: Kontutan izanda aipatutako Errege Dekretu Legea 2015eko uztailean indarrean sartuko dela eta aurtengo otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako ebazpenarekin bat eginez, Udal honek, Eusko Jaurlaritzari Erregistro Zibila kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziazioak azkar ditzan eskatzea.

**MOCIÓN PRESENTADA POR EL JUZGADO DE PAZ.**

Se dio cuenta a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se presenta una moción suscrita por los sindicatos CCOO, ELA y LAB, en contra del Real Decreto ley 8/2014, de 4 de julio, que pretende la entrega de la gestión del Registro Civil a los registradores mercantiles.

Tras debatirlo suficientemente, los corporativos acuerdan unánimemente lo siguiente:

PRIMERO: Posicionarse en contra del Real Decreto Ley 8/2014, de 4 de julio, que entrega la gestión del Registro Civil a los registradores mercantiles.

SEGUNDO: Considerar necesario que el Registro Civil se mantenga gestionado por las Oficinas de Registro Civil actuales y por los Juzgados de Paz, prestando un servicio público y gratuito a la ciudadanía ahora y para siempre.

TERCERO: Reclamar al Gobierno Vasco que, en consonancia con la moción aprobada en febrero de este año en el Parlamento Vasco, acelere las negociaciones para el traspaso de las competencias de gestión y ejecución, habida cuenta que el Real Decreto Ley mencionado entrará en vigor el 15 de julio de 2015.

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

## UDAL ARTXIBOKO DOKUMENTUEN XAHUKETARAKO BATZORDE BEREZIA

**UDAL ARTXIBOKO ZENBAIT DOKUMENTUEN XAHUKETA.**

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Aurtengo martxoaren 18an xahuketa batzorde berezi bat osatu zen, udal-kideak eta udal idazkaria, udal artxiboko erantzule bezala, parte izanik.

Baita, Udalak xahutuak izan zitezkeen udal artxiboko agirien azterketa eta klasifikazioaz ardura eman zion EREITEN KULTUR ZERBITZUAK, S.L. baltzuaren bi ordezkari bertaratu ziren.

EREITEN KULTUR ZERBITZUAK, S.L.-k baltzuko ordezkariek, egin zutenaren azterlana eta hau burutzeko erabilitako metodologia aurkeztu eta azaldu zieten batzordekideei.

Aipatu proposamenak ondoko agiri hauen xahuketa proposatzen du, azterlanean zehazten diren araudiak ezarritako mugak eta epeak aintzakotzat hartuz:

- Ordain-aginduen espedienteak.
- Diru-sarrera aginduen

## COMISIÓN ESPECIAL PARA LA DESTRUCCIÓN DE DOCUMENTACIÓN DEL ARCHIVO MUNICIPAL

**EXPURGO DE CIERTA DOCUMENTACIÓN DEL ARCHIVO MUNICIPAL.**

Se dio cuenta a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Con fecha de 18 de marzo del presente se formó una comisión especial de expurgo formada por los miembros de la corporación y la secretaria municipal como responsable del archivo municipal.

A la misma acudieron dos representantes de la empresa EREITEN KULTUR ZERBITZUAK, S.L. , a la cual el Ayuntamiento encargó la función de analizar y seleccionar la documentación del archivo municipal susceptible de ser expurgada.

EREITEN KULTUR ZERBITZUAK, S.L. presentó en la comisión un dossier explicativo del trabajo realizado y la metodología aplicada, junto con una propuesta de expurgo.

Dicha propuesta propone la eliminación de los siguientes documentos, cumpliendo con los plazos y límites establecidos normativamente y que se especifican en el dossier:

- Expedientes de mandamientos de pago.
- Expedientes de mandamientos de

espedienteak.

- Zabor eta uraren errolda fiskalak.

- Langileen trebakuntzarako espedienteak.
- Langileen hautapenerako espedienteak.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko kitapenak.
- Obra txikien espedienteak.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak zein estolderia, zabor eta uraren tasak ordaintzeko diru-laguntzen espedienteak.

- Zahar egoitzak diruz-laguntzeko espedienteak.
- Administrazio Publikoaren ondarezko erantzukizunaren inguruko espedienteak.
- Ondasunen gaineko zergaren erroldak.
- Landatar ondasunen gaineko zergaren erroldak.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren erroldak.

ingreso.

- Padrones fiscales de basura y agua.
- Expedientes de formación de personal.
- Expedientes de selección de personal.
- Liquidaciones del Impuesto Sobre la Renta de las Personas Físicas.
- Expedientes de obras menores.
- Expedientes de ayudas económicas para el pago de tasas municipales de agua, basura, alcantarillado e Impuesto sobre Vehículos de Tracción mecánica.
- Expedientes de subvención a hogares de jubilados.
- Expedientes de responsabilidad patrimonial de la Administración Pública.
- Padrones del impuesto sobre bienes inmuebles.
- Padrones del impuesto sobre bienes inmuebles rústicos.
- Padrones del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, honako hau adosten da:

LEHENENGOA: Gehiengo absolutuz erabakitzen da, BILDU taldeko zinegotzien aurkako botoarekin, udal artxiboan dagoen agirien xahuketa onartzea, EREITEN KULTUR ZERBITZUAK, S.L. baltzuak aurkeztutako azterlanaren arabera.

BIGARRENA: Batzar akordio hau, aipatu azterlanarekin batera Eusko Jaurlaritzako

Tras debatir el tema suficientemente se acuerda lo siguiente:

PRIMERO: Se acuerda por mayoría absoluta , con el voto en contra de los concejales del grupo BILDU, aprobar el expurgo de la documentación obrante en el archivo municipal en base al dossier presentado por la empresa EREITEN KULTUR ZERBITZUAK, S.L.

SEGUNDO: Se acuerda enviar el Acuerdo Plenario junto con el dossier al


5

dagokion Sailera igortzea, onespena eman dezan.

Sarasola jaunak, bere taldeak emandako botoaren zentzua azaltzeko xedearekin aipamen hauek egiten ditu:

- Xahutu baino lehenago dokumentuen digitalizazioaren kostua zein izango den jakin nahiko luke.
- Xahutu baino lehen 75 kaxa horien ikuskapena egin nahiko luke.

## AZPIEGITURA ETA HIRIGINTZA

**IHURREKO URBANIZAZIOAREN ZATI BAT LAGATZEKO UDALETXE ETA ARCELORMITTAL-EN ARTEKO HITZARMENA: HONEN ONARPENA ETA ALKATEA AHALMENTZEA FORMALIZATZEKO.**

Joan zen batzorde informatzailean, udal-kideek aldez aurretik zeukaten hitzarmenaren zirriborroaren edukia azaldu zitzaien batzorde-kideei.

Olaberriko Udalak Eusko Jaurlaritzari diru-laguntza eskatu zion Etxebizitzako sailburuordearena den 2014ko uztailaren 30eko Agindu bidez arautua dagoen “udalei eta toki erakunde txikiei eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuei hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko eta hobekuntza-lanak egiteko” diru-laguntzaren baitan, **Ihurre auzoan igogailu urbano bat egiteko.**



Departamento correspondiente de Gobierno Vasco para que éste preste su conformidad.

El Sr. Sarasola, con el fin de exponer el sentido del voto de su grupo afirma lo siguiente:

- Antes de realizar el expurgo quisiera conocer el costo de la digitalización de esos documentos.
- Antes de su expurgo solicita que se examinen los documentos de las 75 cajas.

## INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO

**CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO Y ARCELORMITTAL PARA LA CESIÓN DE UN TRAMO DE LA URBANIZACIÓN DE IHURRE: APROBACIÓN Y FACULTAR AL ALCALDE PARA LA FORMALIZACIÓN DEL MISMO.**

En la pasada comisión informativa se expuso el contenido del borrador del precitado convenio, cuya copia tenía cada concejal con anterioridad.

El Ayuntamiento de Olaberria solicitó ayuda económica al Gobierno Vasco, en el marco de las “subvenciones a Ayuntamientos y Entidades Locales menores, y Entidades privadas con fines sociales de utilidad pública, para la elaboración o actualización de planes de accesibilidad y para la ejecución de obras de mejora que garanticen la accesibilidad en el entorno urbano y de las edificaciones”, regulada mediante Orden de 30 de julio de 2014, del Consejero de Empleo y Políticas Sociales,

**para la ejecución de un ascensor urbano en el barrio de Ihurre.**

2014ko abenduaren 30eko Ebazpen bidez, Olaberriko Udalari aipatu proiektuaren egikaritzarako, diru-laguntza ematea erabakitzen da.

Mediante Orden del 30 de diciembre de 2014, resuelve conceder al Ayuntamiento de Olaberria una ayuda económica para el citado proyecto.

Nahiz eta ArcelorMittal Gipuzkoa, S.L. eta Olaberriko Udalaren artean Ihurreko urbanizazioa lagatzeko konpromisoa egon, zenbait alkatetza ebazpenetan jasotzen den bezala, oraindik ez da lagapen hori gauzatu. Ondorioz eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeko jarduketa hori aurrera eramateko, egoera hori arautuko duen aldeen arteko hitzarmen baten egikaritza beharrezkotzat jotzen da.

Aunque existe el compromiso de cesión de la urbanización de barrio de Ihurre por parte de ArcelorMittal Gipuzkoa, S.L. al Ayuntamiento de Olaberria recogido en distintas resoluciones de alcaldía, aún no se ha materializado dicha cesión, por lo que, para poder llevar a cabo esa actuación de eliminación de barreras arquitectónicas, se ve necesaria la redacción de un convenio entre las partes, que regule dicha actuación.

Hitzarmenaren xedea, Olaberriko Udalari Cari de la Cruz 25. eta Jose María Aristrain 4. portalen artean dagoen urbanizazioaren 512 m² lagatzea izango litzateke alegia, oztopo arkitektonikoen ezabaketa suposatuko lukeen igogailu urbano baten exekuziorako, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzaz baliatuz.

La finalidad, por lo tanto, del presente convenio será la cesión de 512m2 de urbanización, para la ejecución por parte del Ayuntamiento de la eliminación de barreras arquitectónicas, a través de la ejecución de un ascensor urbano que se situaría entre los portales nº25 de calle Cari de la Cruz y el nº4 de la calle J.M. Aristrain, valiéndose de la subvención concedida a tal fin por el Gobierno Vasco.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, honako hau adosten da:

Tras debatir el tema suficientemente se acuerda lo siguiente:

<u>LEHENENGOA:</u> Gehiengo absolutuz erabakitzen da BILDU taldeko zinegotzien aurkako botoarekin, Olaberriko Udalari Cari de la Cruz 25. eta Jose María Aristrain 4. portalen artean dagoen urbanizazioaren 512 m² lagatzea objektu den hitzarmena onartzea, oztopo arkitektonikoen ezabaketa suposatuko

<u>PRIMERO:</u> Se acuerda por mayoría absoluta, con la abstención de los concejales del grupo BILDU aprobar el convenio de cesión de 512m2 de urbanización, para la ejecución por parte del Ayuntamiento de la eliminación de barreras arquitectónicas, a través de la ejecución de un ascensor urbano que se situaría entre los

lukeen igogailu urbano baten exekuziorako, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzaz baliatuz.
.

portales nº25 de calle Cari de la Cruz y el nº4 de la calle J.M. Aristrain, valiéndose de la subvención concedida a tal fin por el Gobierno Vasco.

<u>BIGARRENA:</u> Hitzarmena formaltzeko Alkatea ahalmentzea erabakitzen da.

<u>SEGUNDO:</u> Se acuerda facultar al Alcalde para formalizar dicho convenio.

Sarasola jaunak, jarduketa hau hauteskunde arrazoiengatik egiten dela dio, egokiena litzakeelarik Ihurreko urbanizazio osoa Udaletxearen esku uztera itxarotea horrelako jarduketak aurrera eramateko.

El Sr. Sarasola afirma que a ellos les parece que se hace por motivos electorales y considera que lo más correcto hubiera sido que estas actuaciones se llevaran a cabo una vez cedida toda la urbanización de Ihurre al Ayuntamiento.

**IHURREN IGOGAILU BAT EXEKUTATZEKO KONTRATAZIO PROZEDURA:**

**1.- EXEKUZIO PROIEKTUAREN ONARPENA.**

**2.- BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUEN ONARPENA.**

**3.- GASTUAREN ONARPENA.**

**4.- KONTRATAZIO PROZEDURARI HASIERA EMATEA.**

Joan zen batzorde informatzailean udal-kideei gaiaren berri eman zitzaien.

Udal arkitekto aholkulariek egindako Ihurre auzoan igogailu baten exekuziorako proiektua aurkeztu zen.

Era berean, aipatu jarduketaren kontratazio prozedura arautuko duten baldintza administratiboen agiria aurkeztu zen .

**PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN PARA LA EJECUCIÓN DE UN ASCENSOR URBANO EN IHURRE:**

**1.- APROBACIÓN DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN.**

**2.- APROBACIÓN DE LOS PLIEGOS ECONÓMICO-ADMINISTRATIVOS.**

**3.- APROBACIÓN DEL GASTO.**

**4.- DAR INICIO AL PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN.**

Se informó a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se presentó el proyecto de ejecución de un ascensor urbano en el barrio de Ihurre redactado por los arquitectos asesores municipales.

Asimismo, se presentaron los pliegos de cláusulas administrativas particulares que han regir el procedimiento de contratación de la referida actuación.

Gaia behar adina aztertu ondoren, honako hau adosten da:

Tras estudiar el tema suficientemente se acuerda lo siguiente:

LEHENENGOA: Gehiengo absolutuz onartzen da, BILDU taldeko abstentzioarekin, Ihurre auzoan igogailu urbano bat egiteko exekuzio proiektua.

PRIMERO: Se acuerda por mayoría absoluta, con la abstención del grupo BILDU, aprobar el proyecto de ejecución de un ascensor urbano en el barrio de Ihurre.

BIGARRENA: Gehiengo absolutuz onartzen da BILDU taldeko abstentzioarekin, Ihurre auzoan igogailua egiteko kontratazio prozedura arautuko duten baldintza administratiboen agiria.

SEGUNDO: Se acuerda por mayoría absoluta, con la abstención del grupo BILDU, aprobar los pliegos de cláusulas administrativas particulares que han regir el procedimiento de contratación de la referida actuación.

HIRUGARRENA: Gehiengo absolutuz erabakitzen da, BILDU taldeko abstentzioarekin, aurrean aipaturiko jarduketa egiteko gastua onartzea eta kontratazio prozedurari hasiera ematea.

TERCERO: Se acuerda por mayoría absoluta con la abstención del grupo BILDU, aprobar el gasto correspondiente y dar inicio al procedimiento de contratación de la citada actuación.

## OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK

## HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES

**3.000 EUROTIK GORAKO FAKTUREN ONARPENA.**

**APROBACIÓN DE LAS FACTURAS SUPERIORES A 3.000 EUROS.**

Bederatzi fakturen edukia udal-kideei azaldu zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

Se expuso el contenido de las nueve facturas a los corporativos en la pasada comisión informativa.

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

# 2015/03/18KO BILKURA

**3.000 EUROTIK GORAKO FAKTURAK**
**Facturas que superan los 3.000 euros**

| ZBK. | IZENA | CIF | ADO | AZALPENA | KOPURUA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | FORU ALDUNDIA – KUDEAKETA KOSTUA | P200000F | ADO-99-209/2015 | | 5.371,63 € |
| 2 | GOROLDI S.L.U. | B20502613 | ADO-99-183/2015 | FRA- 1500276 | 3.233,79 € |
| 3 | GOIMEN ELKARTEA | G20188652 | ADO-99-134/2015 | AGIRI 14/15 | 3.757,93 € |
| 4 | IBERDROLA | A95758389 | ADO-99-98/2015 | ARGITERI PUBLIKO | 5.212,34 € |
| 5 | IBERDROLA | A95758389 | ADO-99-116/2015 | ARGITERI PUBLIKO | 3.566,14 € |
| 6 | GOROLDI S.L.U. | B20502613 | ADO-99-114/2015 | FRA. 1500070 | 3.233,79 € |
| 7 | GESMUNPAL S.A. | A48913297 | ADO-99-112/2015 | FRA. 2015/17 | 46.063,59 € |
| 8 | SOROA ARQUITECTOS S.L.P. | B20758884 | ADO-99-109/2015 | FRA. 201513 | 3.379,51 € |
| 9 | | | | | |
| 10 | | | | | |
| 11 | | | | | |
| 12 | | | | | |
| 13 | | | | | |
| 14 | | | | | |
| 15 | | | | | |
| 16 | | | | | |
| 17 | | | | | |
| 18 | | | | | |
| 19 | | | | | |
| 20 | | | | | |
| 21 | | | | | |
| 22 | | | | | |
| 23 | | | | | |
| 24 | | | | | |
| 25 | | | | | |
| 26 | | | | | |
| 27 | | | | | |
| 28 | | | | | |
| 29 | | | | | |
| 30 | | | | | |
| 31 | | | | | |
| 32 | | | | | |
| 33 | | | | | |
| 34 | | | | | |
| 35 | | | | | |
| 36 | | | | | |
| 37 | | | | | |
| 38 | | | | | |
| 39 | | | | | |
| 40 | | | | | |
| 41 | | | | | |
| 42 | | | | | |
| 43 | | | | | |
| 44 | | | | | |
| 45 | | | | | |
| 46 | | | | | |
| 47 | | | | | |
| 48 | | | | | |

| | |
|---|---|
| **GUZTIRA** | **73.818,72 €** |

Olaberrian, 2015Eko martxoaren 4an

Zerrendan ez dagoen 9. faktura bat ere aurkezten da:

También se presenta para su aprobación un novena factura que no está en el listado anterior:

CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI Fra. Nº 48 69.725,11 euros.

Fakturak bozkatzen dira gehiengo absolutuz onartzen direlarik, BILDU taldeko zinegotzien aurkako botoarekin.

Se procede a votar las facturas que son aprobadas por mayoría absoluta con el voto en contra de los concejales del grupo BILDU.

**DIRUZAINTZAREN EGOERA. INFORMAZIOA.**

**SITUACIÓN DE TESORERÍA. INFORMACIÓN.**

Udal-kideei, 2015ko martxoaren 16ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 16 de marzo de 2015.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira, **2.297.834,50 euro** ditu.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **2.297.834,50 euros.**

Udal kideak jakinaren berri gelditzen dira.

Los Corporativos quedan al corriente.

**KREDITU ALDAKETA 5-2014: KREDITU TRANSFERENTZIA.**

**MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS 5-2014: TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS.**

Joan zen batzorde informatzailean bere espedientean dagoen gaiaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Se dio cuenta a los corporativos en la pasada comisión informativa de toda la información disponible que obra en su correspondiente expediente.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du:

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda:

BAKARRA: Onarpena ematea 5/2014 zenbakia duen Kreditu Aldaketa Espedienteari, kreditu transferentzia modalitatean, Udalaren 2014ko aurrekontuaren barruan.

UNICO: aprobar el Expediente de Modificación de Créditos, nº 5/2014 en la modalidad de transferencia de créditos, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente al

**ISUN BARKAMEN ESKAERA.**

Joan zen Batzorde Informatzailean gaiaren berri eman zitzaien Udal-Kideei.

OLZI-2014-0002 ikuskaritza espediente zenbakidun enpresak, Udal zergen ikuskaritza prozeduretatik eratorritako zehapenaren barkamen eskaera egin du, zein prozedura horretatik eratorritako zorraren ordainketaren zatiketa eskaera.

Barkamen zein ordainketa zatiketa eskatzen diren udal zerga mota eta ekitaldiak honako hauek dira:

- Jarduera ekonomikoengatik zerga, 2011 ekitaldia.

Aipatu udal zergei dagokien zorraren ordainketaren zatiketaren eskaeran, ordainketa kopuru berdineko sei zatitan egitea proposatzen dute, sei hilabetetan zehar ordaintzeko.

2013ko maiatzaren 23ko Batzarrean Olaberriko Udalak, udal zergen ikuskaritza prozeduretatik eratorritako zehapenen barkamenaren inguruan zenbait irizpide onartu zituen, portzentajeak honako hauek hain zuzen ere:

1) %10ekoa, zerga arloko arau haustea

ejercicio de 2014.

**SOLICITUD DE CONDONACIÓN DE SANCIÓN.**

Se expuso el tema a los Corporativos en la pasada Comisión Informativa.

La mercantil con nº de expediente de inspección OLZI-2014-0002 ha presentado solicitud de condonación de sanción y a su vez solicitud de fraccionamiento de deuda derivada del procedimiento de inspección de tributos locales que se ha llevado a cabo por los servicios de inspección del Ayuntamiento de Olaberria.

Los tributos locales y los períodos por los cuales se solicita la condonación y fraccionamiento son los siguientes:

- Impuesto sobre actividades económicas, ejercicio 2011.

En la solicitud de fraccionamiento del pago de la deuda correspondiente a los referidos tributos locales, proponen que el pago se realice en seis partes iguales a pagar en 6 mensualidades.

En Sesión Plenaria de 23 de mayo de 2013, el Ayuntamiento de Olaberria aprobó una serie de criterios de condonación de sanciones derivadas de procedimientos de inspección de tributos locales, cuyos porcentajes de condonación son los siguientes:

1) 10% para los procedimientos de

lehenengo aldiz egin deneko ikuskaritza prozeduretan.

2) %10ekoa, zergapekoaren kolaborazioa egon deneko ikuskaritza prozeduretan.

3) %50koa, likidazio guztiak (hala dagokion zergaren erregularizazioarenak, nola zerga zigorrarenak) luzatu eta gehienez ere, hurrengo 6 hilabeteetan ordainduko direla jasotzen duen ordainketa plan bat sinatu deneko ikuskaritza prozeduretan. Horretaz gain, barkamen portzentaje hau aplikatu ahal izateko, enpresak bere langile guztien lanpostuak mantendu behar izango ditu epe horretan.

Interesdunak, zorra barkatzeko hiru ukanbeharrak betetzen ditu, epe horretan langile guztien lanpostuak mantentzeko baldintza kontrolatzeke geldituko litzakeelarik. Honi eransten baldin badiozu, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak IV tituluan xedatzen duen lez, zigorraren zenbatekoa %40 murrizteko aukera dagoela zergapekoak erregularizazioari nahiz zigorrari adostasuna ematen dienean, zehapenaren hasierako kopurua %82-n murriztu daiteke, barkamen eta murrizketaren artean.

Gaia behar bezala eztabaidatu ondoren, udal-kideek honako erabaki hau hartu dute, BILDU taldeko aurkako botoarekin:

inspección en los que la infracción tributaria se haya cometido por primera vez.

2) 10% para aquellos procedimientos de inspección en los que ha existido colaboración del obligado tributario.

3) 50% para los procedimientos de inspección en los que se pacte un plan de de pago de liquidaciones (tanto de regularización del tributo correspondiente, como de sanción) como máximo de 6 meses desde la emisión de las liquidaciones. Además de lo anterior, para que se pueda aplicar este porcentaje de condonación, la empresa deberá mantener los puestos de trabajo de todos sus trabajadores durante dicho período.

El interesado cumple con los tres requisitos exigidos para la condonación de la deuda, quedando pendiente de control la exigencia de la permanencia de toda la plantilla de trabajadores durante ese período. Esto unido a la reducción del 40% de la sanción para los supuestos de conformidad del obligado tributario, tanto a la regularización como a la sanción, que prevé el título IV de la Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, hace posible que la reducción total de la sanción pueda alcanzar el 82%, entre reducción y condonación.

Tras debatir el tema suficientemente, los corporativos toman el siguiente acuerdo, con el voto en contra del grupo BILDU:

LEHENA: OLZI-2014-0002 espediente zenbakidun enpresari, ikuskaritza prozeduratik eratorritako zehapenaren barkamen partziala ematea, 2011 ekitaldiari dagokion jarduera ekonomikoko zergari dagokiona, 2013ko maiatzaren 13ko Batzarreko Akordioan zehaztutako baldintzak betetzen dituelako eta bertan aurreikusten den eran eta mugen arabera.

PRIMERO: Condonar parcialmente a la mercantil con nº de expediente de inspección OLZI-2014-0002 la sanción derivada del procedimiento de inspección de tributos locales, correspondiente al impuesto de actividades económicas ejercicio 2011, por considerar que cumple con los criterios establecidos por acuerdo plenario de 23 de mayo de 2013 y en los términos y con los límites previstos en el citado acuerdo.

BIGARRENA: Jarduera ekonomikoen zergari (2011) dagokion OLZI-2014-0002 espediente zenbakidun ikuskaritza prozeduratik eratorritako zorraren zatiketa onartzea, sei zati berdinetan.

SEGUNDO: Acordar el fraccionamiento de pago de la deuda derivada del procedimiento de inspección de tributos locales, nº de expediente OLZI-2014-0002, correspondiente al impuesto de actividades ejercicio 2011 en seis partes iguales.

HIRUGARRENA: Zehapenaren %50-aren barkamena honako baldintza honetara menpekotzea: enpresak langile plantilla mantendu beharko du, gutxienez, zorraren ordainketa epean zehar.

TERCERO: Supeditar la condonación del 50% de la sanción al mantenimiento de toda la plantilla de trabajadores de la empresa, durante al menos, el período de pago de la deuda.

LAUGARRENA: Akordio hau enpresa interesdunari jakinaraztea.

CUARTO: notificar el presente acuerdo a la empresa interesada.

Sarasola jaunak idazkari-kontuhartzaileari eskatzen dio hurrengo Batzarrerako ze diru kopuru barkatu den ekartzea.

El Sr. Sarasola solicita a la secretaria-interventora que aporte para el último pleno cuánto dinero se ha condonado.

## ONGIZATE SOZIALA ETA OSASUNA

**ARRISKUTSUEN IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK (APP):**

## BIENESTAR SOCIAL Y SANIDAD

**ANIMALES POTENCIALMENTE PELIGROSOS (APP):**

**1.- APP UDAL ERREGISTROAREN ERAKETAREN ONARPENA.**

**2.- ONDOKO EREDUEN ONARPENA: ERREGISTROAREN KARNETA, LIZENTZIAREN KARNETA.**

Joan zen batzorde informatzailean gaia udal-kideei azaldu zitzaien.

101/2004 Dekretuak, ekainaren 1ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoak, bere 20. artikuluan xedatzen du arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek arriskutsuak izan daitezkeen txakurren udal-erregistroan erregistratu behar dituztela.

Erregistro honek, besteak beste, datu hauek izango ditu: identifikazio kodea; edukitzailearen datuak; animaliaren ezaugarriak; animaliaren ohiko helbidea; animaliaren funtzio edo trebetasuna; lizentzia zenbakia, eta abar. Ikusirik Olaberriko Udalean ez dagoela eraturik honelako erregistrorik, eta badela herrian arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jaberik, eta hauek bertan inskribatzeko eskaera egin dutela.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, honako hau adosten da ahobatez:

<u>LEHENENGOA:</u> Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren udal-erregistroa eratzea.

<u>BIGARRENA:</u> Bi eredu hauek onartzea:

**1.- APROBACIÓN DE LA CREACIÓN DEL REGISTRO MUNICIPAL DE APP.**

**2- APROBACIÓN DE LOS SIGUIENTES MODELOS: CARNET DEL REGISTRO, CARNET DE LA LICENCIA.**

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

El Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su artículo 20 prevé que los propietarios de perros potencialmente peligrosos tienen que inscribir a estos perros en el registro municipal de perros potencialmente peligrosos.

Este registro, entre otros, deberá contener los siguientes datos: código de identificación, datos del tenedor, características del animal, funciones o capacidades del animal, número de licencia., etc.
Teniendo en cuenta que en el Ayuntamiento de Olaberria no existe tal registro y que hay en el municipio propietarios de perros potencialmente peligrosos que han solicitado su inscripción en el registro.

Tras debatir el tema suficientemente se acuerda lo siguiente por unanimidad:

<u>PRIMERO:</u> Crear un registro municipal de perros potencialmente peligrosos.

<u>SEGUNDO:</u> Aprobar los siguientes

- Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren erroldaren agiria.
- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziaren agiria.

**LANGILEAK**

**UDALETXEKO LANGILEEN ZERRENDAREN ALDAKETA: IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZA LANPOSTUAREN MEREZIMENDU ESPEZIFIKOAK TXERTATZEA.**

Joan zen batzorde informatzailean gaia udal-kideei azaldu zitzaien.

Gaia bozkatzen da, gehiengo absolutuz onartuz, BILDU taldeko abstentzioarekin.

**Galdera eta erreguak**

Une hauetan, Alkateak hitza hartzen du ondoren jasotzen dena azaltzeko:

- Udalak hirugarrenei egindako ordainketa guztien zerrenda bat prestatu eta udaleko web orrian argitaratu du, legealdiaren hasieratik 2015 urte-arte. 2011. urtea ez da jaso, gobernu berria ekainean hasi baitzen.

Era berean, udal-kideei ordainketa zerrenda honen ale bat banatzen die.

Ondoren, Alkateak idatzi baten irakurketari ekiten dio, ondoren oso-osorik jasotzen

modelos:

- Documento acreditativo del registro del animal potencialmente peligroso.
- Documento acreditativo de la licencia para la tenencia de animales potencialmente peligrosos.

**PERSONAL**

**MODIFICACIÓN DE LA PLANTILLA ORGÁNICA MUNICIPAL: INCLUSIÓN DE MÉRITOS ESPECÍFICOS PARA EL PUESTO DE SECRETARÍA-INTERVENCIÓN.**

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se procede a la votación y se aprueba por mayoría absoluta con la abstención del grupo BILDU.

**Ruegos y preguntas**

En este momento, el Alcalde toma la palabra para exponer lo siguiente:

- Se ha preparado y publicado en la web municipal una relación de pagos que el Ayuntamiento ha realizado a terceros desde el inicio de la legislatura hasta el 2015, sin incluir el 2011 puesto que no la nueva legislatura con el nuevo gobierno comenzó en junio de ese año.

Asimismo, reparte a los corporativos un ejemplar de esta relación de pagos.

A continuación, el Alcalde pasa a dar lectura a un escrito el cual se recoge

delarik: íntegro, a continuación:

" Iñigo Sarasolak martxoaren 25an aurkeztutako instantziari erantzunez, bi gauza:

Bata. Udaletxe honetan ez dago inongo espedienterik hustezko betelan horren buruzkorik, behin eta berriz Idazkaritzak adierazi dioen bezala.

Bia. Gipuzkoa 1:5000 ortofotoetan irudiak gainjarriz ez da inolako lur mugimendurik ikusten 2000. Urteaz geroztik. Are gutxiago gu udaletxean gauden denboran. Argazkiak atxikitzen dizkizuet.

Baina begira nolako kasualitatea, albokoaren begian orratza ikusten duenak eta berean kamellua ikusteko gai ez denak, bere etxondoan duen betelana. Ortoargazki horietan ikus daitekeena. Are gehiago, zabor bilketaren eredu aurkeztu denak, nola duen bere etxe-ondoa, zaborrez beteta? Eta zabor pilaketa hori ez al dago, publikoa den, saneamenduko hodiaren arketa bat estaltzen?

Beste eraikuntza batzuk legez kanpo egin direnean ahopetik salatu dituen horrek, eta gero beraien salbatzaile aurkeztu den horrek, gure salatzailea anonimatuan edukitzearen babespean, salatu al ditu bere zelaietan onddoen gisa, eta seguruenik inongo baimenik gabe, Lazkaoko eremuan jaio diren eraikuntzak? Hauek ere orto argazkietan ikus daitezkeenak.

Txabola bat lekuz aldatzera zihoala eta zuinketa egiterakoan, mugaz gertuegi zegoelako, obraren atzerapena eskatu zuen, arau berrien zain, bertan egin ahal izateko. Baina bere lagunak zer dabiltza esamesaka Josebaren salaketa izan dela obra geldiarazi duena? Esaerak dioen bezala: *Denak bere baldintzakoak direla huste du lapurrak*.

Bere etxean burutzen ari den obrari dagokionez, ordaindu al ditu tokatzen zaizkion zerga eta tasak? Edo baimenik gabe ari da obrak burutzen? Dirudienez, eta berak esana da, hor egiten dutela bizitza, edo behinik behin lo, zer lizentziarekin egin ditu barneko antolakuntzak eta obrak? Besteak salatzeko bai, eta bere burua? "*Udal teknikariak bidaliko ditugu hori aztertzera*" .

Alkateak, udal teknikariak eta lehen alkate izan zenak 39 eurotako bazkari bat egina leporatu zion Iñigok udal-bilkura honi. Duela urte eta pikokoa zenez alkate hau ez zen gogoratzen zein bazkari edo zer zen. Baina aztertu ondoren jabetu da, Ihurre Bizirik elkarteko lehendakariarekin, Ihurre auzoko etxeen egoerari buruz jaurlaritzarekin izandako harremanen berri emateko eginiko billera osteko bazkari bat zela.

Gema, esan al dizu Iñigok zer egin zuen Zebazelai azpiko pinuak eraman izanagatik, berak kontatua, jaso zituen 100 €ekin? “

Iñigo Sarasola jaunak honako hau erantzuten dio Alkateak esandakoari:

- Zebazelai azpiko pinuei dagokionez, berak ez zuela dirurik jaso dio, esan ziotela 100 euroko balioa zutela pinuek baina berak ez zuela ezer jaso.
- Bere etxe ondoko betelanari dagokionez, Lazkaoko lurretan dagoela eta edozein kasutan Lazkaori eskatu beharko liokeela baimena. Bestalde dio, bere egoera ekonomikoak posible egiten duen heinean kenduko dituela kendu beharrekoak.

El Sr. Sarasola, ante las afirmaciones del Alcalde responde lo siguiente:

- En cuanto a los pinos de debajo de Zebazelai, dice que aunque le dijeron que el valor de esos pinos era de 100 euros, el no ha cobrado nada.
- En cuanto al relleno de al lado de su casa, dice que está en terrenos de Lazkao y que en todo caso deberá pedir el permiso a Lazkao. Asimismo dice que en cuanto lo permita su situación económica quitará lo que tenga que quitar.

Ondoren, Batzarrera publiko bezala bertaratu den Pedro Heras jaunak Alkateari Harizti industrialdean dagoen semaforoaren egoeraren berri ematea eskatzen dio.

A continuación Pedro Heras, asistente al Pleno como público, pregunta al Alcalde a cerca de la situación del semáforo existente en el polígono Harizti.

Alkateak aipatu semaforoaren egoeraren berri ematen dio.

El Alcalde le explica cual es la situación del precitado semáforo.

**Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura arratsaldeko lau t’erdiak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkaria naizenez, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.**

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las dieciséis horas y treinta minutos, y yo, la Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA**